



**2024KO UZTAILAREN 1EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko uztailaren 1ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko ekainaren 17an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 51 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGETA HIRU euro ETA BERROGEITA ZORTZI zentimokoa (67.363,48 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

Zubizkitza auzoko 2. fasea berrurbanizatzeko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak, Soroa Arquitectos, S.L.P. enpresakoak, eta Estibalitz Igartua arkitekto teknikoak, lanen bigarren obra egiaztagiria egin dute. Bigarren obra egiaztagiri honen zenbatekoa LAUROGEITA BOST MILA BERREHUN ETA BERROGEITA BI euro ETA LAUROGEITA ZAZPI zentimokoa (85.242,87 €) gehi B.E.Z.ari dagokion HAMA ZAZPI MILA BEDERATZIEHUN ETA BAT eurokoa (17.901,00 €) da, guztira EHUN ETA HIRU MILA EHUN ETA BERROGEITA HIRU euro ETA LAUROGEITA ZAZPI zentimokoa (103.143,87 €).

Lanak CONSTRUCCIONES M.B. ANTIO, S.L.L. enpresa ari da burutzen.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) adierazi du abstenitu egingo direla.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), bigarren obra egiaztagiri hau onartu egin du.



IV.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gerriko kultur elkarteari.-

- 2024ko urtarriletik ekainera bitartean aurrera eraman duen Mintzalagun jardura antolatzeagatik, dagokion 5.050 €-ko lehen ordainketa egitea. Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.
- 2024ko euskarazko film laburren XXI. Laburbira antolatzeagatik, 496,10 €-ko dirulaguntza ematea. Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.01.335.00 partidatik.

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaion kopurua 260 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

V.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Jon Barandiaran Mujikari.-

Zubierreka auzoan, ekainaren 24an, San Juan egunez auzokideek San Juan Txikiko ermitan antolatzen duten erromeriaren gastuei aurre egiteko, Jon Barandiaran Mujikari 325 €-ko diru laguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.05.338.00 partidatik egingo da.

VI.- HEZKUNTZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Hezkuntza batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du:





2024. urterako aurreikusitako dirulaguntzaren azken zatia, hau da, 35.000 €, orain ordaintzea.

Ordainketa 2024ko 1 481.02.326.00 partidatik egingo da.

San Benito Ikastolari.-

Udalaren eta San Benito Ikastolaren artean 2024an izenpetutako hitzarmenaren arabera, urteko dirulaguntzaren lehen zatia ematea. Hau da, 17.000 € ematea mantentze gastuetarako eta 11.500 € ematea jarduerak aurrera eramateko.

Ordainketak aurrekontuko partida hauetatik egingo dira:

- 1 481.01.326.00 partidatik, mantentze gastuetarako.
- 1 481.02.323.00 partidatik, jardueren gastuetarako.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko maiatzean mar-txan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkata-rik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien mer-katariei laugarren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRU LAGUNTZA
JUANA PANIAGUA FRANCISCO	55 €	13,75
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	5 €	1,25
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	115 €	28,75
OPILTXO SL (BIKA)	25 €	6,25
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	15 €	3,75
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	120 €	30,00
ERROTAUNDI SL	145 €	36,25
GUZTIRA	480 €	120 €

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.



Ez da galderarik egon.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA

The image shows a blue ink signature and a blue ink stamp. The stamp is a shield-shaped emblem with a crescent moon and a star in the upper left, a tree in the center, and a sun in the lower right. Below the emblem, the text "LAZKAOKO UDALA" is printed in blue capital letters. To the right of the emblem is a handwritten signature in blue ink. A long, thin blue line is drawn across the signature and extends towards the bottom right of the page.